

# **EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko V. azterlana, 2020**

## **Laburpen exekutiboa**

---

## 1. Azterlanaren helburuak eta metodologia

Hemen aurkezten den azterlana 2012. urteaz geroztik bi urtez behin egiten den ikerketa baten bosgarren edizioa da. Honako ikerketa honek EAEn **2020ko maiatzaren 4tik 10era bitarteko astean** bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen gaueko zenbaketaren emaitzak jasotzen ditu.

2020ko edizioak, beste gauza askok bezala, COVID-19aren pandemiaren eragina jasan du, eta zenbait berezitasun ditu aurreko urteetako azterlanen aldean. Landa-lana noiz egin zen da alderik nabarmenena; izan ere, urritik maiatzera aurreratu zen, garai hartan zegoen egoeraz baliatzeko, pandemiarako bereziki egokituriko egonlekuetan baitzeuden orduan normalean kalean egon ohi diren pertsona gehien-gehienak.

Metodologiaren ikuspegitik, ikerketa honetan eskaintzen diren datuak aldi berean baina toki banatan egin diren **gaueko bi zenbaketa-motaren** emaitza dira; bata kalean egin da, eta bestea ostatua duten baliabideetan:

- **Kaleko gau-zenbaketaren** kasuan, honako udalerrri hauek izan dira edizio honetan parte hartu dutenak: Amurrio, Laudio eta Gasteiz, Araban; Barakaldo, Bilbo, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete eta Sestao, Bizkaian; eta Arrasate, Beasain, Donostia, Eibar, Errenteria, Irun, Oiartzun, Pasaia eta Tolosa, Gipuzkoan. 2020an, **19 udalerrri** horiek – 2018an baino zazpi gutxiago– Euskadin bizi ziren biztanle guztien %61 hartzen zuten.
- **Erkidegoa** izan zen **ostatua duten baliabideetan egindako zenbaketaren eremu geografikoa**. Guztira, ostatuz hornituriko **348 zentro eta zerbitzuek** parte hartu zuten ikerketa honen garapenean; horietatik 59 Araban zeuden, 154 Bizkaian eta 135 Gipuzkoan. Datuak bildu ziren unean, parte hartu zuten zentro eta zerbitzuek – guztira, 43 euskal udalerritan zeuden banatuta– 3.219 plaza zituzten guztira, gizarte-bazterketako zenbait egoeratan zeuden pertsonen bideratuak.

Aurreko zenbaketetan ez bezala, **bosgarren edizio honetan ezin izan da boluntarioen laguntzarik izan**, eta hori oso baliagarria izan da beti kaleko landa-lana egin ahal izateko. Une hartako mugikortasunaren muga handiak zirela-eta, **kaleko zenbaketa, pertsona boluntariorik gabe, irizpide metodologiko arinagoak aplikatuz** egin behar izan zen.

Parte hartzea erabaki zuten udalek beren jendea baliatu behar izan zuten, aste oso bat izan zuten (gau baten orde) informazioa biltzeko, eta haien lankidetzaz errazteko lan-formula malguagoak proposatu zitzaizkien. Halere, pandemiaren ondorioz, 2020an udalen parte-hartzea 2018an baino txikiagoa izan zen.

**Ostatuz hornituriko baliabideetan egindako zenbaketa**, kalekoa ez bezala, betiko irizpideen arabera egin zen, eta zerbitzu horien **arduradunei** eskatu zitzaizkien **inkestak** egiteko erabilgaitzaileei. Jasotako informazioa **2020ko maiatzaren 6tik 7rako gauari** dagokio; beraz, kasu honetan, kaleko zenbaketetan ez bezala, eutsi ahal izan zitzaion gau jakin bakar baten erreferentziari.

Aurreko edizioetan bezala, funtsezkoa izan zen, aldeztu aurreko fase batean, **koordinazio teknikoa** bideratzea administrazio publikoko maila desberdinetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako profesionalekin, **zentroen direktorio** osatu eta eguneratu bat egiteko xedeaz, halakorik gabe ezingo bailitzateke zenbaketa antolatu.

2018ko edizioan ez bezala, hartan aintzat hartu baitziren beste arreta-sare batzuk ere, pertsona-talde jakinei zuzenduak (iragaitzazko migratzaile eta nazioarteko babes-eskatzaileei), oraingo honek kontuan hartzen du soil-soilik **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako**, lehen eta bigarren mailako arretako **ostatuz hornituriko zentroetan eta zerbitzuetan** eskaintzen den arreta, bazterketa arrisku edo egoeran dauden pertsona zein genero indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutakoa.

Halere, salbuespen gisa, 2020an, hiru lurraldeetan administrazio publikoek aldi baterako gaitutako ekipamenduak batu zitzaizkien, martxoaren hasieran kalean zeuden pertsonen ostatu emateko.

Une jakin batean bizitegi-bazterketa larriko egoera desberdinetan dauden pertsonen kopurua ezagutze hutsak berez baliagarritasun ukaezina duen arren, **ikerketa honen helburua harago joatea izan da hasieratik, jakin ahal izateko, egoera horiek zenbat pertsonari eragiten dieten ez ezik, zein diren haien oinarrizko ezaugarriak eta premia nagusiak.**

Zeregin honetan, funtsezkoa da bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen berek parte hartzea ikerlanean. Edizio honetan, guztira, **2.179 pertsona adinez nagusiek parte hartu zuten galdetegiari erantzunez**, aurreko edizioetan baino askoz gehiagok; esaterako, 2018an baino 600 pertsona gehiagok erantzun diote galdetegiari.

Kaleko erantzun-tasa duela urte batzuk lortutakoa baino zertxobait baxuagoa izan zen arren –neurri handi batean, bitartekoen faltagatik, parte hartu zuten udalen zati batek ezin izan zituelako elkarrizketak aplikatu–, ostatuz hornituriko zentro eta zerbitzuetan aurreko urteetan baino elkarrizketa gehiago egitea lortu zen, eta 2012an eskuratutakoak bakarrik gainditzen du 2020an iritsi den partaidetza-tasa.

Zifra hauek oso emaitza positiboak ematen dituzte, partaidetza-maila aurreko edizioetan baino pixka bat handiagoa, eta, ziur asko, erantzunen kalitatea ere handiagoa da.

Erabilitako **galdetegia hogeita hamar galdera** baino gehixeagok osatzen zuten, eta xede jakin bat zuten, ikerketa hau osatzen duten pertsonen egoera zehatza ezagutzea.

Elkarrizketatuak izatea onartu zutenei, honako gai hauen inguruko galderak egin zitzaizkien: beren oinarrizko ezaugarriak; administrazio-egoera; etxerik gabe egin duten ibilbidea eta gizarte-harremanak; ikasketa-maila, jarduerarekiko harremana eta diru-sarreraren iturriak; zerbitzu publikoen erabilera eta osasun-egoera. 2020ko galdera-sortan izan diren aldaketak oso-oso gutxi dira 2018koarekin alderatuta, nahiz eta galdera batzuen formulazioa aldatu egin behar izan zen maiatzaren hasieran ematen zen egoera espezifikora egokitzeko.

## 2. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua

Honako hauek dira EAEn **2020ko maiatzaren 4tik 10erako** asteen bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopuruari buruzko datu nagusiak:

- **1a 2.800 pertsona bizitegi-bazterketa larrian.** 2020ko maiatzaren hasieran, **2.797 pertsona** aurkitu ziren, guztira, bizitegi-bazterketako egoera larrian.

**Haien guztien proportzio oso txiki bat (%5,8), etxe-konfinamenduagatik ere, eta zenbait eratako motiboengatik, kalean zeuden pertsonena zen.** %12,5 aterpetxe eta gaueko harrera-zentro arruntetan zeuden pertsonak ziren, eta **%30,2 pandemiarako egokitu ziren egonleku berezietako batean.**

Azkenik, identifikatutako pertsona guztien %6 indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-zerbitzuetan zeuden ostatua hartuta, eta %45,4 gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako ostatzuz hornituriko zenbait eratako gizarte-zerbitzutan. Aurkitutako ia 2.800 pertsonetatik, 372 Araban zeuden (%13), 1.468 Bizkaian (%53) eta 957 Gipuzkoan (%34).

**1. taula. Identifikatutako bizitegi-bazterketa larriko zenbait egoeraren kopurua eta banaketa, lurralde historikoaren arabera. 2020ko maiatzaren 4tik 10erako astea**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
<b>Pertsona-kopurua</b>				
Kalean	19	95	49	163
Aterpetxe eta gaueko harrera-zentro arruntetan	73	172	106	351
Covid-19arentzat bereziki egokituriko egonlekuetan	69	543	234	846
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentro eta pisuetan	41	70	57	168
Gizareratze-zentro eta -pisuetan	170	588	511	1.269
Guztira	372	1.468	957	2.797
<b>Banaketa bertikala (%)</b>				
Kalean	%5	%7	%5	%6
Aterpetxe eta gaueko harrera-zentro arruntetan	%20	%12	%11	%13
Covid-19arentzat bereziki egokituriko egonlekuetan	%19	%37	%25	%30
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentro eta pisuetan	%11	%5	%6	%6
Gizareratze-zentro eta -pisuetan	%46	%40	%53	%45
Guztira	%100	%100	%100	%100

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko V. azterlana 2020.

- **163 pertsona bakarrik kalean 2020ko maiatzean; 419 aurkitu ziren, berriz, 2020ko urrian.** Maiatzaren 4tik 10era bitarteko asteen, ikerketa honetan parte hartu zuten 19 udalek pandemiaren hasiera-aldean kalean zeuden 163 pertsona aurkitu zituzten.

Kopuru hori duela ia bi urte erregistratutakoa baino askoz ere baxuagoa da; izan ere, udalerrri berberak aintzat hartuz gero bi urteetan, %61ean murriztu bide da kalean dauden pertsonen kopurua. Kalean aurkitu zituzten pertsonen dagokienez, gehien-gehienak gizonak ziren (%91), %53 jatorriz atzerritarrak ziren, eta %47k 45 urte edo gehiago zuten. Oro har harturik, esan daiteke, aurreko urteekin alderatuta, 2020an kalean zeuden pertsonak zaharragoak zirela eta neurri handiago batean zirela jatorriz atzerritarrak ez ziren pertsonak.

- **Kalean aurkitutako 163 pertsonetatik, %69k (113 pertsona) hiru euskal hiriburuetako batean eman zuten gaua, eta, gainerakoek, kalean gutxienez pertsona bat detektatu zen 13 udalerrietako batean.**

Bilbon 68 pertsona aurkitu ziren (guztira aurkitutako 163 pertsonen %42); Donostian 29 (%18) eta Gasteizen 15 (%10). Barakaldon, Bizkaiko bigarren udalerririk jendeztatuenean, 10 pertsona aurkitu ziren guztira (%6,1); Errenterian, hau da, Gipuzkoan biztanle-kopururik handiena duen hirugarren herrian, 9 (%5,5); Leioan, 8; eta Getxon, 6 lagun. Kalean zeuden gainerako pertsonak (17 lagun) gainerako 12 udalerritako 9tan aurkitu zituzten, eta hiru udalerritan (Beasain, Eibar eta Tolosa) ez zen inor aurkitu.

Tasa bihurtutako datu horien analisiak agerian uzten du aurreko edizioetako egoeraren oso bestelakoa dela egoera; izan ere, EAEko hiru hiriburuetako bakar bat ere ez dago tasa handiena duten lau udalerrien artean, zalantzarik gabe, gaitutako baliabideen ondorio gisa.

**2. taula. Kalean aurkitutako pertsonen kopurua, banaketa eta tasa. 2020ko maiatzaren 4tik 10erako astea**

		Sexua			zk.	%	Guztira	
		Gizonek	Emakumeak	Datu gabe			Biztanleria 2020	Tasa (%)
<b>Araba</b>	Amurrio	2	0	0	2	%1,2	10.264	0,195
	Laudio	1	0	0	1	%0,6	18.118	0,055
	Gasteiz	15	1	0	16	%9,8	253.996	0,063
	Guztira	18	1	0	19	%11,7	282.378	0,067
<b>Bizkaia</b>	Barakaldo	8	2	0	10	%6,1	101.486	0,099
	Bilbo	64	3	1	68	%41,7	350.184	0,194
	Galdakao	1	0	0	1	%0,6	29.427	0,034
	Getxo	6	0	0	6	%3,7	77.770	0,077
	Leioa	4	4	0	8	%4,9	32.013	0,250
	Portugalete	1	0	0	1	%0,6	45.746	0,022
	Sestao	1	0	0	1	%0,6	27.452	0,036
	Guztira	85	9	1	95	%58,3	664.078	0,143
	<b>Gipuzkoa</b>	Arrasate	2	0	0	2	%1,2	22.073
Beasain		--	--	--	0	--	13.938	--
Donostia		27	2	0	29	%17,8	188.240	0,154
Eibar		--	--	--	0	--	27.769	--
Errenteria		7	2	0	9	%5,5	39.540	0,228
Irun		3	0	0	3	%1,8	62.910	0,048
Oiartzun		4	0	0	4	%2,5	10.309	0,388
Pasaia		2	0	0	2	%1,2	16.035	0,125
Tolosa		--	--	--	0	--	19.816	--
Guztira	45	4	0	49	%30,1	400.630	0,122	
<b>Guztira</b>	Hiriburuak	106	6	1	113	%69,3	792.420	0,143
	Gainerakoak	42	8	0	50	%30,7	554.666	0,090
	Guztira	148	14	1	163	%100,0	1.347.086	0,121

Iturria: EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko V. azterlana 2020.

- **Aterpetxe eta gaueko harrera-zentro arruntetan 351 pertsona zeuden ostatu hartuta 2020ko maiatzaren 6tik 7rako gauean.** Zenbaketa egin zen unean 315 pertsona zeuden guztira zentro horietan; hau da, askoz ere baxuagoa da 2020ko kopurua 2018ko urrian erregistratutakoa baino (497 pertsona, %41 gehiago). Baliabide hauen erabilzaileen arteko distantzia soziala bermatu behar zenez, zentro asko murriztu egin zuten plazen eskaintza (Bilboko Udaleko *gaueko harrerako udal-zerbitzuak* edo Gasteizko Udaleko *Aterpe gaueko zentroak*), edo, are gehiago, ostatu-aukera egokiagoak aurkitu zirelarik, itxi ere egin zituzten batzuk (Donostiako Udaleko *gaueko aterpea* edo Barakaldoko Udaleko *gaueko harrerako udal-zerbitzua*).

- **2020ko maiatzaren 6tik 7rako gauean, guztira, 846 pertsona zeuden ostatu hartuta pandemiaren hasieran egokitu ziren aldi baterako egonlekuren batean.**

Pertsona horiek azterlanean jasotako bizitegi-bazterketako egoeren oso zati garrantzitsua dira, eta egokiro adierazten dute une horretako urgentziazko harrera-ahalmena. 2020ko maiatzaren hasieran, 32 zentro zenbatu ziren ikerlan honetan, mota askotakoak, eta guztira 939 ostatu-plaza eskaintzen zituztenak. Zentro horiek (kiroldegiak, frontoiak, gazte-aterpetxeak) egokitu egin ziren kalean edota oso egoera desegokian zeuden pertsonak bete zituzten martxoaren 14an Espainiako Gobernuak ezarritako alarma-egoeraren ondoriozko konfinamendu-eskakizunak. Plazarik gehienak Bizkaian egokitu ziren -0,495 plaza berri 1.000 biztanleko-, ondoren Gipuzkoan (%0,384) eta, azkenik, Araban (%0,258).

- **Aurreko kaleko egoeretatik edo harrerako beste gizarte-baliabide batzuetatik zetorren pandemiarako egokituriko baliabide berezietan ostatua hartuta zeuden pertsonen %82.**

Galdetegiari erantzun zioten 784 pertsonen (guztien %93 dira) erantzunetatik ondorioztatzen denez, gehien-gehienak kaleko egoeretatik zetozen (%52), edota oso bizitoki prekarioetatik, hala nola eraikin abandonatuetatik edo txaboletatik (%6). %24k adierazi du gizarte-zerbitzuetako beste baliabide batzuetatik zetorrela, eta %12 banatzen zen beren etxetik zetozela ziotenen artean (%4) edo ezkutuko etxegabe-egoeretatik zetozela ziotenen artean (adibidez, senideen, lagunen etxeetatik, pentsioetatik eta abar) (%8). Egitura soziodemografikoari dagokionez, nabarmentzekoa da emakumeen presentzia baxua (%8) -baita kalean edo aterpetxe arruntetan ikusitakoa baino baxuagoa ere-, eta pertsona gazteen (%42k 30 urte baino gutxiago zuten) eta atzerriko jatorria duten pertsonen proportzio handiagoa (%77 ziren jatorriz atzerritarrak; kalean, adibidez, %53 dira, eta aterpetxe arruntetan %62).

- **Indarkeria matxistaren biktima ziren emakumeak artatzeko baliabideetan, guztira, 94 emakume eta haien ardurapeko 74 haur zeuden.**

Arreta jaso duten pertsonen kopurua (168) altuxeagoa da 2018ko urrian (140) baino. Zerbitzu hauek baliatzen dituzten emakume helduen osakeraren arabera, %82 jatorriz atzerritarrak ziren, %26k 30 urte baino gutxiago zuen, eta %54k 30 eta 44 urte bitarte.

- **la 1.300 pertsona zeuden gizarteratze-ostaturik hornituriko beste zentro eta zerbitzu batzuetan ostatua hartuta.**


Aipatutako egoerez gain, 2020ko maiatzaren 6tik 7rako gauean **1.269 pertsona** zeuden guztira -774 gizon eta 333 emakume heldu, eta 162 haur eta nerabe - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonentzako ostaturik hornituriko gainerako zerbitzuetan, eta (neurri askoz ere txikiagoan), hirugarren sektoreko hainbat erakundek dituzten plaza pribatuaren sarean. Euskadi osoan dauden 348 zentro desberdinez ari gara; 1.582 plaza dira eta %80ko batez besteko okupazio-tasa dute. 2020an baliabide horietan artatuta zeuden pertsonen kopurua altuxeagoa zen 2018an baino (1.253 pertsona).

### 3. Gehiago al dira orain etxerik gabeko pertsonak hiriburuetan?

Ikerketa honetatik aldizka ateratzen diren eta udal batzuen memoriak modu osagarrian ematen dituzten emaitzetatik, ondoriozta daiteke 2020an bizitzeko sabairik ez zuten pertsona guztiei buruz lortutako zifrek –kalean, aterpetxe arruntetan eta, salbuespen gisa, pandemiarako gaitutako egonlekuetan zeudenei buruz ari gara– koherentzia handia dutela aurreko urteetako zifrekin, eta **egoera hauen goranzko joera bat adierazten dutela, bereziki nabarmena Bilboren kasuan eta askoz ere arinagoa beste bi hiriburuetan, hala nola neurri handiko beste udalerrietan.**

1. grafikoa. Kale, aterpetxe eta covid-19 ekipamendu egoitzen bilakaera EAEko hiru hiriburuetan.

Pertsona- eta plaza-kopurua 2014-2020



Iturria: EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko V. azterlana 2020

Gaueko zenbaketek hiru hiriburuetarako ematen dituzten bilakaerari buruzko datuek oso egoera desberdina erakusten dute, eta gero eta desberdinagoa, batetik, Bilboren eta, bestetik, Donostiaren eta Gasteizen artean.

Alde batetik, hiru kasuetan pertsonak –eta plazak– gehitu egin direla ikusten da, agian pertsona-kopurua benetan handitu delako eta, era berean, ohiko zenbaketak jasotzen ez dituzten egoerak azaleratu direlako.

Bestalde, Donostiak eta Gasteizek beren berezitasun espezifikoak eusten badiete ere –xeheago azaltzen dira txostenean–, eta inola ere ezin badira ere modu berean landu, biek erakusten dute denboran zehar hazkunde mailakatua izateko joera, zeina, nahiz eta 2020an areagotu ahal izan den (alde batetik, benetako igoera izan delako, eta, bestetik, zenbaketek normalean hartzen ez dituzten egoerak azaleratu direlako), ezin baita parekatu Bilbok erakusten duen bilakaerarekin.

Hirugarrenik, Bilbon oso nabarmena bada ere etxerik gabeko pertsonen gorakada, eskuragarri dagoen informazioa berrikusiz, argi dago 2020ko zenbaketaren emaitzak ez direla hasieran pentsa zitekeena bezain 'atipikoak'.

- Bilbon, 2018an dagoeneko, nabarmen handitu zen **kalean zeuden pertsonen kopurua**: 112 lagun ziren 2016. urtean, eta 214 lagun 2018an. Era berean, urte hartako azterlanaren arabera, kopuru hori 349 pertsonarengana irits zitekeen kontraste aplikatuko metodoak kontuan hartu izan balira. Oso antzeko kopurua, 315 lagun, kalkulatu zuen Gizartean eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Taldeak zirela 2019ko urrian kalean egon zitezkeen etxerik gabeko pertsonak (2020ko zenbaketa egin baino zazpi hilabete lehenago).

Hala bada, kontuan hartzen baditugu kalean aurkitu ziren 68 pertsonak gehi pandemiarako baliabide berezietan bizi ziren eta kale-egoeretatik zetozele adierazi zuten 299 pertsonak, emaitza da ondoriozko egoerak (367 pertsona) gizarte-hezkuntzako taldeak zazpi hilabete lehenago (315 pertsona) eta bi urte lehenago (349 pertsona) kalkulatuakoak baino altuxeagoak direla, besterik ez.

- **Aterpetxeetan edo gaueko harrera-zentroetan artatutako pertsonen dagokienez**, 2020an 150 pertsona izango genituzke guztira (aterpetxe arrunt batean egon, zeudenak), eta beste 98 pertsona gehiago, pandemiarako gizarte-baliabide gehigarrietan aldi baterako kokatuak eta adierazi zutenak ostatz hornituriko beste gizarte-baliabide batzuetatik zetozele (ez zuten zertan nahitaez aterpetxeak izan).

Emaitza 248 pertsona dira, pandemia iritsi ez balitz, hiriko aterpetheen eta gaueko harrera-zentroen sarean (200 plaza baino gehixeagoko ahalmenarekin), edo gizarte-zerbitzuetako beste baliabide batzuetan egon zitezkeenak.

- Azkenik, 79 pertsona inguru geratuko liriteke, hiri honetako etxerik gabeko egoera guztien %11, baliabide berezi hauetan zeudenak, baina bestelako bizitegi-egoera batzuetatik zetozenak. %6 Bilbon erroldatutako pertsonak izango liriteke, eta %5 erroldatu gabeak; gehienak ezkutuko etxegabe-egoeretatik (senideen, lagunen etxean, pentsioetan bizi ziren) etorriak bide ziren, eta, neurri txikiagoan, erakunde itxietatik etorriak (ospitaleetatik, adingabeak hartzeko zentroetatik eta espetxetik).

#### 4. Begirada bat lurraldeko gainerako lekuei

Hiriburuetan bereziki kontzentratzen diren arren, kalean egoteari edo gaua aterpetxe eta gaueko harrera-zentroetan emateari lotutako etxerik gabeko egoerak ez dira hiriburuetan bakarrik gertatzen. Eskura ditugun datu-sail zabalek iradokitzen dutenez, **nahiz eta hiriburuetan, oro har, beste udalerrri batzuetan baino askoz ere altuagoa izan kaleko egoeren intzidentzia, lurraldeko gainerako lekuetan ere gertatzen dira tankera honetako egoerak; eta maizago gertatzen dira, oro har, hirigune handietan udalerrri txikietan baino**. Hala ere, udalerrri hauetan ere -30.000 biztanle edo gutxiago dutenetan- ia-ia seriearen hasieratik gertatzen dira tankera honetako egoerak; intzidentzia-tasak 0,064 eta 0,106 pertsona artekoak dira 1.000 biztanleko.

2020ri buruzko informazioak adierazten duenez, halaber, azpimarra daiteke 2020ko maiatzaren hasieran salbuespenezko egoera izan arren, guztira 50 pertsona egon zirela kalean gau-zenbaketa egin zen hiriburutik kanpoko 16 udalerrietan. 30.000 biztanletik gorako udalerriren batean aurkitu ziren aurreko guztien %74, eta gainerakoak (13 pertsona), zenbaketa egin zen 30.000 biztanletik beherako hamar udalerrietatik zazpitan; hiru lurralde historikoetako udalerrriak daude horien artean (Laudio, Galdakao, Sestao, Amurrio, Arrasate, Pasaia eta Oiartzun).



**3. taula. Kaleko pertsonen zenbaketaren emaitzen bilakaera udalerrika. 2012-2020**

	2012	2014	2016	2018	2020
<b>Pertsonak kalean</b>					
Hiriburuak	243	247	190	336	163
Hiriak >=30.000 bizt.	0	73	59	66	37
Udalerriak <30.000 bizt.	0	3	25	28	13
Guztira	243	323	274	430	213
<b>Biztanleria*</b>					
Hiriburuak	780.261	774.782	775.820	781.662	792.420
Hiriak >=30.000 bizt.	0	334.587	402.843	403.165	359.465
Udalerriak <30.000 bizt.	0	46.716	236.385	267.242	195.201
Guztira	780.261	1.156.085	1.415.048	1.452.069	1.347.086
<b>Tasa 1.000 biztanleko</b>					
Hiriburuak	0,311	0,319	0,245	0,430	0,206
Hiriak >=30.000 bizt.	--	0,218	0,146	0,164	0,103
Udalerriak <30.000 bizt.	--	0,064	0,106	0,105	0,067
Guztira	0,311	0,279	0,194	0,296	0,158

\*Gaueko zenbaketa egin duten udalerrietako biztanleak biltzen ditu, urte bakoitzerako, zehazten diren hiru udalerrimota bakoitzaren arabera (hiriburuak, 30.000 biztanleko edo gehiagoko beste udalerririk batzuk; eta 30.000 biztanle baino gutxiago duten gainerako udalerririk).

Iturria: EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterlan-saila.

Ikuspegi zabalxeago batetik, orobat gertatzen da interesgarria hiriburuak ez diren tamaina handiko udalerririk batzuetan gertatzen denaren azterketa.

Horixe da EAEko lau udalerriren kasua (lurrealde bakoitzeko bigarren eta hirugarren udalerririk jendeztatuenak dira): Barakaldo eta Getxo, Bizkaian, eta Irun eta Errearteria, Gipuzkoan.

Lau udalerririk horiek beste ezaugarri batzuk ere partekatzen dituzte. Guztiek parte hartu dute gaueko zenbaketen azken hiru edizioetan (2016, 2018 eta 2020); guztiek dute aldiaren amaieran erantzukizun publikoko udalaren gaueko harrera-zerbitzu bat, eta, denetan, pandemia iritsi eta ondorengo hilabeteetan, udalek egonleku osagarriak egokitu zituzten kalean zeuden pertsonak hartzeko.

Ikuspegi ebolutibo batetik, **aztertutako datuek argi erakusten dute 2014. eta 2018. urteen artean, landu diren lau udalerrietan, gero eta egoera gehiago direla kalea-aterpetxeak zirkuituari lotutako egoerak.**

Jakina, **gaueko zenbaketen muga metodologikoen eragotzi egiten dute adieraztea datu horiek zenbateraino diren urte osoko adierazgarriak.** Hala ere, 2020an ikusitakoa ikusita, zehaztasun handiagoz baloratu ahal izango litzateke, aipatutako udalekin batera, joera hori 2018. urteaz geroztik mantendu ote den, jakina, maiatzean gailu bereziren batean ostatu hartuta zeuden pertsona guztiak udalerrian etxerik gabeko pertsonak zirela.

Hala izango balitz, 2020ko emaitzek adieraziko lukete lau udalerrietan egoera horiek areagotu egingo liratekeela, eta gai horretan eragin beharko litzateke, eta etorkizunean gauzatzekoren bat egin.

## 5. Bizitegi-bazterketa larrian dauden biztanleen bizi-baldintzak eta premia

Azterlan honetan identifikatu denaren arabera, honako hauek dira bizitegi-bazterkeria larrian dauden pertsonen bizi-baldintzei eta premiei buruzko emaitza nagusiak<sup>1</sup>:

- **Bizitegi-bazterketako egoeran dauden hamar pertsonatik lauk baino gehiagok diote urtebete daramatela, asko jota, etxerik gabe.**

Nabarmenezkoa da egoera horretan nahiko denbora gutxi daramatela dioten pertsonen ehuneko altua. Lortutako emaitzen arabera, %42k urtebete edo gutxiago daramatela etxerik gabe erantzuten du, eta kopuru hori modu orekatuan banatzen da zazpi hilabete baino gutxiago daramatenen (%21) eta denbora gehiago daramatela diotenen artean, baina ez urtebete baino gehiago (%21).

Oro har, aldi labur batez (gehienez ere urtebete) etxerik gabe dauden ibilbideak maizago agertzen dira gaua aterpetxeetan (%45) eta pandemia-garaian harrera egiteko baliabideetan (%61) ematen dutenen artean; eta, batez ere, genero-indarkeriaren baliabideetan babestuta dauden emakumeen artean (%90). Halaber, etxerik gabeko egonaldi laburrak oso argiak dira 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, bai gizonen artean (%50), bai emakumeen artean (%52).

Ikuspegi ebolutibo batetik, bildutako datuen arabera, etxerik gabe denbora gutxi daramaten pertsonak gero eta pisu erlatibo handiagoa dute aztertutako egoera guztietan. Etxerik gabe urtebete edo gutxiago daramaten pertsonen pisu erlatiboa hazi egin da pixkana-pixkana, eta 2016ko %31tik 2020ko %42ra igaro da.

- **Etxea galdu aurretik, %42 bere etxean edo etxe partekatu batean bizi zen, eta hamar pertsonatik bat erakunde itxi batetik zetorren.**

Etxerik gabe geratu aurretik non bizi ziren galdetuta, kontsultaturiko pertsonen %42k adierazi du nahiko modu independentean bizi zela: %26 etxean eta %16 etxebizitza partekatu batean. Halaber, %31k adierazi du senideren edo lagunaren baten etxean zegoela. Bestalde, hamar pertsonatik batek dio erakunderen batetik zetorrela – adingabeak hartzeko zentro batetik (%6), espexetik (%3), edo osasun-erakunderen batetik (%1)–, eta %5 oso egoera prekarioan zegoen; etxebizitza desegokia zen gehienetan azken horien arazo nagusia.

- **Bizitegi-bazterketako egoeran dauden hamar pertsonatik bi adingabeak hartzeko zentro batean egon dira haurtzaroan eta/edo nerabezaroan.**

Alde batera utzirik badirela kasu jakin batzuk adin txikikoen harrera-zentro batetik ateratzeak eragin zuzena izan dutenak etxerik gabeko egoeran, ikerketa honetan lortutako emaitzek aditzera ematen dute bizitegi-bazterketa larrian dauden hamar pertsonatik bi, gutxienez, horrelako zentro batean egon direla haurtzaroan eta/edo nerabezaroan.

- **Kontsultatu zaien bizitegi-bazterketako egoera larrian dauden pertsona guztien %77ri gustatuko litzaioke hemen bizitzen geratzea.**

Galdetutako pertsona gehien-gehienek adierazi dute dauden udalerrian jarraitu nahi dutela (%77). Gainerakoak bi taldetan banatzen dira: %11 joan nahi luketenak dira, eta %13 oraindik ez dakitenak zer egingo duten.

<sup>1</sup> Kapitulu honetan ageri den azterketa 2020ko maiatzaren 4tik 10era bitarteko astean egin zen elkarrizketa bati erantzun zioten 2.179 pertsonen erantzunetan oinarritzen da. Ehunekoetan, bizitegi-bazterkeria larrian zeudela aurkitu ziren 2.554 pertsona adinez nagusien %85,3 dira.

Geratu nahi dutela adierazten duten pertsona-talde gehienak oso lotuta daude *etxegabekeria*-egoerekin, eta, zehazki, pandemiarako baliabide berezietan ostatu hartu zutenak dira (%84) eta kalean eta aterpetxe arruntetan lo egiten zutenak (%83 eta %82, hurrenez hurren).

Zein dira geratzeko ematen dituzten arrazoi nagusiak? Etxerik ez duten pertsona gazteenen artean, lotura argia dago geratzeko nahiaren eta beren lan-egoera eta bizibaldintzak hobetzeko nahiaren artean.

– **Egiturazko faktoreak bizitegi-bazterketa larriko hiru egoeratik biren atzean leudeke.**

Aipatutako *etxegabekeria* honen arrazoi nagusiak honako hauei lotuta daude: baliabide ekonomikorik ez izateari (%45), egoera administratibo irregular bati lotutako arazoei, zeinak, kasurik gehienetan, lan-aukeren galerarekin lotua baitaude (%28), eta familia-gatazkei eta ezkontza-hausturari (%22). Arrazoi ohikoenen artean, orobat nabarmentzen dira lan-arazoak (%20) eta hainbat substantziarekiko mendekotasun-arazoak (%14).

Oro har, egiturazko arrazoiak nabarmentzen dira batez ere –neurri handi batean, arrazoi horiek lan-munduan sartzeko arazoekin eta gutxieneko baliabide ekonomikoaren faltarekin lotuak egoten dira–, eta horietan bide daude ikerlan honetan aintzat hartutako hiru *etxegabekeria*-egoeratik biren atzean. Horien ondoren, eta nahiko orekatuta, aipatzekoak dira giza harremanekin eta arrazoi pertsonalekin loturiko kausak, hamar pertsonatik ia hiruri eragiten baitiete; eta, azkenik, arrazoi instituzionalak, neurri handi batean erakunde bat bertan behera uzteari eta familiaren laguntzarik ezari lotuak (%5).

– **Hamar pertsonatik seik baino gehiagok etxebizitza batean modu independentean bizitzea aukeratuko luke.**

Bizitzeko zer ostatu-mota nahiko luketen galdetuta, galdetutako pertsona gehienek autonomia-nahi argia dute: hamarretik seik baino gehixeagok (%62) etxebizitza bat aukeratuko luke bertan bakarrik bizitzeko; %31k, berriz, etxebizitza konpartitu batera joatea gustatuko litzaioke, eta %6k bakarrik hautatuko luke gizarte-zerbitzuen baliabide bat, etxebizitza bat (%5) nahiz (askoz gutxiago) aterpetxe bat edo gaueko harrera-zentro bat (%1).

Bizitegi-autonomiaren desira, etxebizitza arrunt batean, oso zabalduta dago kontsultatutako pertsona gehienen artean; askoz zabalduegia gainera emakumeen artean gizonen artean baino, adina edo jatorria gorabehera.

– **Kalean lo egin izanaren bizipena askoz ere ohikoagoa da gizonen artean, baina emakumeek biktimizazio handiagoa izaten dute arlo honetan.**

Ikerlan honetan identifikatutako pertsona guztien %71k bizi izan ditu kale-egoerak, dela orain, dela iraganean. Horrek argi adierazten du kalean lo egin izana, egun batzuetan eta/edo aldizka izan arren, ikerlan honetan aztertzen diren ostatuz hornituriko baliabideetan gaua ematen duten pertsona gehienek ezagutzen duten esperientzia dela. Gizonen artean (%77), proportzio hori askoz ere altuagoa da emakumeen artean baino (%44), eta genero-alderik handienak gazteen artean ematen dira.

Zer neurritan jasan dituzte lapurretak, irainak edo erasoak, inoiz kalean lo egin behar izan dutelako, bizitegi-bazterketa larria pairatzen duten pertsonak?

Emaitzen arabera, kalean inoiz lo egin duten 10 pertsonatik 6 lapurreta edo erasoren baten biktima izan dira.

Dirua edo beste gauzaren bat lapurtzea da maizenik sufritzen den delitua (%45), ondoren irainak edo mehatxuak (%44), eta gero, distantzia handiagoz, eraso fisikoak (%26) eta sexu-erasoak (%6).

Nahiz eta askoz gizonetzko gehiagok lo egiten duten kalean emakumezkoek baino, handiagoa da emakumeen biktimizazioa zenbait eratako arriskutan, lapurretaren arriskuan izan ezik, lapurretaren ehunekoa berdina baita kalean lo egin duten gizonen eta emakumeen artean.

Nolanahi ere, desberdintasun nabarmenenak (eta ikerlan honen hurrenez hurreneko edizioetan gertatzen den bezala) sexu-erasoetan gertatzen dira: kalean inoiz lo egin duten gizonen %4k eta emakumeen %22k jasan dituztela diote.

– **Bizitegi-bazterketan dauden pertsonen %85ek nolabaiteko harremana mantentzen du bere familiarekin.**

Kontsultatutako pertsonen %85ek adierazi du familiako norbaitekin harremanen bat mantentzen duela, aurrez aurrekoa izan edo ez. Hala ere, dirudenez, %15ek ez du inolako harremanik bere familiako gainerako kideekin.

Adin handieneko gizonengan (%32), kalean bizi direnengan (%31) eta, oro har, atzerritarrak ez diren gizonengan (%28), gainerako kasuetan baino zabalduagoa dago familia-harremanen erabateko haustura (edo erabateko falta).

Aldiz, genero-indarkeriaren arloko baliabideetan dauden emakumeen %94 eta 30 urtetik beherako pertsonak dira familia-harremanen bat gehienbat mantentzen dutenak, izan emakumeak (%93) edo izan gizonak (%92).

– **Hamar pertsonatik hiruk, pandemia baino lehen, bakarrik ematen zuten egunaren zatirik handiena.**

Bakardade edo isolamendu sozialeko egoerak, pandemiaren aurreko unean, zertxobait maizago ageri ziren gizonen artean (%31) emakumeen artean baino (%27). Hala eta guztiz ere, bakardade-mailarik handienak, aurten behintzat, pandemiarako prestatutako baliabide berezietan bizi ziren pertsonen dagozkie (%45); oso gertutik jarraitzen diete horiei genero-indarkeriaren esparruko baliabideak erabiltzen dituzten emakumeek.

– **Elkarrizketatutako pertsonen %16k lan-jardueraren bat egiten du.**

Lanean aritzea, alde batera utzita enplegu irregularrak edo noizbehinkakoak diren, ohikoxeagoa da kontsultatutako emakumeen artean gizonen artean baino. Lanean ari direnak %20 baino gehixeago dira atzerritar jatorriko eta 30-54 urte bitarteko emakumeen artean, baita pandemia dela-eta prestatutako baliabide berezietan bizi ziren pertsonen artean ere.

Atzerriko jatorria duten emakumeen artean, lan-jardueraren bat egiten duten emakume guztien hiru laurdenek dituzten lanpostuak, ia erdibana, garbiketarekin (etxeak garbitzea, batez ere), ostalaritzarekin (zerbitzariak eta gelazainak) eta zainketen sektorearekin lotuak daude, batik bat mendekotasun-egoeran dauden adinekoek laguntzera bideratuta.

Aitzitik, baliabide berezietan ostatatuta dauden pertsonen artean, askoz ere handiagoa da zereginen ugaritasuna, eta nagusiak dira: txatarra saltzea, mantentze- eta berritze-lanak (pintoreak, txapuzak...), eraikuntza eta nekazaritza-lanak (fruta-bilketa, sasoikako lana...).

– **Hiru pertsonatik bat egoera ekonomiko guztiz larrian dago.**

%12k bakarrik jasotzen zuen, 2020ko otsailean, ordainsariren bat bere lan-jarduerarengatik. %36k, gutxienez, laguntza edo prestazio ekonomiko publikoren bat jasotzen zuen, eta %20k, lanik eta diru-sarrerarik gabe eta diru-laguntza publikorik gabe, bere gizarte-sarearen edo hirugarren sektoreko erakunderen baten laguntza ekonomikoa zuen.

Gainerako %32k (kalean eskean lor zezaketena alde batera utzita) ez du inolako diru-sarrerarik aipatzen, eta erabateko prekarietate ekonomikoan daude. Egoera horretan dauden pertsona guztien %45 18 eta 29 urte bitarteko gizon jatorriz atzerritarrak dira, eta %30, berriz, 30 eta 64 urte bitarteko gizonak dira, jatorriz atzerritarrak horiek ere.

– **Hamar pertsonatik bik baino ez dute jasotzen DBEa (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta), eta %29k ez dakite horrelakorik badenik ere.**

Kontsultatutako hamar pertsonatik zazpik adierazten zuten ezagutzen zutela Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, edo laguntza horren berri izan zutela. Hala ere, beste aldetik, esan daiteke zati oso garrantzitsu batek, %29k, ez duela laguntza hau ezagutzen.

Ezagutzen ez duten pertsonen artean, 18 eta 29 urte bitarteko gazteak dira asko eta asko (ezagutzen ez duten guztien %65 dira), eta gehien-gehienak atzerritarrak dira (%89). Horietatik %73k dio hiru urte baino gutxiago daramala EAEEn bizitzen, eta, hortaz, ondoriozta daiteke erroldatzearen gutxieneko baldintza betetzen ez duten pertsonak direla gehienak.

Prestazio ekonomiko hau ezagutzen duten pertsona guztietatik, %27k jasotzen du, baina gainerakoek ez. Azken horien artean –DBEa ezagutzen duten edo haren berri duten pertsonak, baina jasotzen ez dutenak (kontsultatutako pertsona guztien %52 dira) –, gehien-gehienek badakite ez dituztela betetzen DBEa jasotzeko gutxieneko baldintzak (%70); %6k eskatu omen dute dagoeneko eta zain daude, edota eskaera egin aurreko prozesuan daude (izapideetan), eta beste %6, berriz, eskaera egin eta ukatu zaienei dagokie, edota jaso duten eta motiboren batengatik bertan behera utzi zaien pertsonen.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gehien jasotzen duten taldeen artean, aipatzekoak dira atzerritik ez datozen gizonak eta emakumeak (%38 eta %41, hurrenez hurren), eta 55 urteko edo 55 urtetik gorako gizonak eta emakumeak (%37 eta %38, hurrenez hurren). Alderantziz, jatorriz atzerritarrak diren gizonen eta emakumeen artean daude, oro har, jasotze-tasarik baxuenak (%91k ez du jasotzen), 30 urtetik beherako gizonen eta emakumeen artean –gorago esan den bezala, horiexek dira laguntza hau gutxien ezagutzen dutenak–, eta zenbaketa-unean kalean (%86) edo pandemiarako egokituriko baliabide berezietan zeuden pertsonen artean (%92).

– **Ostatua duten gizarte-zerbitzuen ondoren, osasun-arretakoak eta Lanbidek emandakoak dira gehien erabiltzen diren zerbitzuak.**

Ostatu-zerbitzuen ondoren, osasun-arretako zerbitzuak daude, zenbait zentrotatik hornituak (anbulatorioak, osasun-zentro espezializatuak, ospitaleak), azken sei hilabeteetan hamar pertsonatik zazpik erabiltzen dituztenak (%70); eta, ondoren, Lanbidek emandakoak (%67).

Gainerako baliabideak galdetutako pertsonen erdiek baino gutxiagok erabili zituzten maiatzaren aurreko azken sei hilabeteetan; hala ere, azpimarratzekoa da trebakuntza-zentroen (%49) eta oinarritzko gizarte-zerbitzuen (43%) erabilera.

Jatorriz atzerritarrak diren gizonak osatzen dute, bereziki pandemia dela-eta zenbaketaren unean baliabide berezietan zeuden pertsonak, gizarte-zerbitzuak gutxiago erabili dituzten pertsonen profila.

Ostatua hartu duten pertsonen %19k adierazi du zerbitzu bakarra erabili duela, edo batere ez. Aitzitik, pertsona horiek besteek baino gehiago erabili bide dituzte jantoki sozialak (%59) eta larrialdi sozialeko zerbitzuak (%56).

Beste muturrean, zerbitzuak asko erabiltzen dituzten pertsonen artean, aterpetxeen erabiltzaileak daude (zentro horietan ostatua hartu duten pertsonen %58k bost zerbitzu edo gehiago erabili dituzte azken sei hilabeteetan), eta 30 eta 54 urte bitarteko emakumeak (%57k bost zerbitzu edo gehiagora jo dute).

Oro har, argi dago, adina eta jatorria gorabehera, emakumeek zerbitzu gehiago erabiltzen dutela gizonak baino.

– **Hiru pertsonatik batek uste du gizarte-zerbitzuek ez diotela lagundu edo gutxi lagundu diotela.**

Gizarte-zerbitzuekin izandako esperientziaren berri galdetuta, hamar pertsonatik batek baino gehiagok (%11k) uste du ez diotela inolako laguntzarik eman, eta bi pertsonatik batek baino gehiagok (%21ek) uste du gutxi lagundu diotela. Bestalde, %38k diote laguntza dezente eman zaiela, eta %30ek oso laguntza handia jaso dutela.

Kontsultatutako pertsonen osaera soziodemografikoa kontuan hartuta, jatorriz atzerritarrak diren gizonen artean jaso dira baloraziorik negatiboenak (%41ek uste du gizarte-zerbitzuek ez diotela batere lagundu edo oso gutxi lagundu diotela); beste muturrean daude, berriz, jatorriz atzerritarrak diren emakumeak (%23 bakarrik) eta jatorriz atzerritarrak ez diren gizonak eta emakumeak (%22 eta %23, hurrenez hurren)

– **Pertsonen erdiak baino gehiagok oso ontzat jotzen dute pandemian zehar zentroetan jaso duten babes profesionala.**

Kontsulta egin zaien pertsonen erdiek baino gehiagok oso ontzat jotzen dute ostatua duten hainbat eratako zentroetan profesionalek erabiltzaileei ematen dieten arreta, eta oso altua da arreta hori ontzat –oso ontzat edo ontzat soilik– jotzen dutenen ehunekoa.

Egia da, egoera desberdinak aintzat hartuz gero, nabarmentzekoa dela genero-indarkeriaren baliabideetan emakumeek duten gogobetetze-maila handia, baina aterpetxe eta baliabide berezietan ere –eta halakoetan emakumerik ez dago ia–, balorazioa oso positiboa da.

– **Bizitegi-bazterketa larriak eragindako pertsonen eta biztanleria orokorraren artean alde handia dago osasunari dagokionez.**

Etixerik gabeko pertsonen osasun-egoera okerragoa da biztanleria osoarekin alderatzen baldin bada, eta horixe izan da, hain zuzen ere, azterlan honek hasiera-hasieratik azpimarratzen duen aurkikuntzetako bat.

Oro har, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen osasuna hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra dela dio etxerik gabeko pertsonen %34 eta %42 bitarteko kopuru batek (urtearen arabera); eta biztanleria orokorrean, 15 eta 74 urte bitartean, ehuneko hori ez da ia %11,4ra heltzen.

Bestalde, osasun-egoera oso ona edo ona dutela uste dutenen ehunekoa %61etik %66ra bitartekoa da, eta datu horrek kontraste bizia sortzen du 15 eta 74 urte bitarteko EAEko biztanleen %87rekin, 2018ko azken Osasun Inkesta gogoan hartuz gero.

– **Jatorriz atzerritarrak diren hiru pertsonatik batek ez du osasun-txartelik.**

Kontsultatutako pertsona guztien ia hiru laurdenek diote osasun-txartel baten titularrak direla (%74). Seriearen hasieratik erregistratu den proportziorik baxuena da.

Jatorriz atzerritarrak ez diren pertsona gehien-gehienek badute txartel hori, baina jatorriz atzerritarrak ez diren pertsonen artean, heren batek ez luke txartel hori izango eta, beraz, ez luke osasun-zerbitzuetarako sarbide egokirik izango.

2020. urteari dagozkion emaitzetan ageri denez, osasun-txartelik ez duten pertsonen %25ek osasun-arazo larri edo kronikoren bat dute, eta osasun-txartela duten eta osasun-arazo larri edo kronikoren bat duten pertsonen %84 osasun-zentro batera (anbulatoriora, zentro espezializatu batera edo ospitalera) joan dira 2020ko maiatzaren aurreko sei hilabeteetan; baina osasun-txartelik ez duten eta osasun-arazo larri edo kronikoren bat duten pertsonen artean, %59ra jaisten da ehuneko hori.

– **Osasun-arazo larri edo kronikoren bat duten pertsonen %20k ez du tratamendu medikorik jasotzen.**

Osasun-arazo kroniko edo larria duten pertsona guztien artean –esan bezala, %43 dira 2020an– hamarretik zortzik baino ez omen du jasotzen arazo horietarako tratamendu medikoren bat (%80).

Tratamendurik jasotzen ez dutenak bizitegi-bazterkeria larrian dauden pertsona guztien %9 dira. Egoera hori maizago gertatzen da gaua kolean eta aterpetxeetan ematen dutenengan, baita 30 urtetik beherako emakumeengan eta emakume atzerritarrengan ere.

– **Nahasmendu eta gaixotasun mentalak dira osasun-arazorik hedatuena, eta bizitegi-bazterkeria larrian dauden hamar pertsonatik ia biri eragiten diete.**

Nahasmendu eta gaixotasun mentalak dira patologiarik hedatuena, kontsultatutako hamar pertsonatik ia biri eragiten baitiete. Gaixotasun eta nahasmendu horien ondoren, arnas aparatuko gaixotasunak aipatu behar dira (asma, bronkitisa, pulmonia...) –nahiz eta prebalentzia txikiagoa izan, %11 pertsona inguruk izango lituzkete eta–, eta zirkulazio-sistemarekin zerikusia dutenak (barizeak, kolesterola, anemia, diabetesa...). Traumatismoek eta hezur eta artikulazioetako gaixotasunek, berriz, pertsona kontsultatuen %9,7ri eragiten bide diete, eta digestio-aparatuko gaixotasunek %4,8ri.

Prebalentziarik handiena duten bost nahasmendu edo gaixotasunak kontuan hartuta, ikus daiteke, 2018arekin alderatuz gero, jaitsi egiten dela nahasmendu edo gaixotasun guztien prebalentzia, eta hori, neurri batean, 2020an pertsona gazteagoek izan duten pisu espezifikoaren ondorioa izan daiteke.

Hala ere, urte batzuen eta besteen artean gerta daitezkeen aldaketetatik haratago, lortutako emaitzak oso sendoak dira bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen arteko nahasmendu mentalen eragin ikaragarriari eta arnas eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunen prebalentzia berebat handiari dagokienez.